


Ligaxka zaldi lasterketekin

Eskualdeko zazpi partaide, etzi hasita ▶ 5



Insalus uraren instalazio berriak martxan jarri dituzte Lizartzan

EKOIZPENA ▶ Lantegi zaharra berritu eta beste berria egin dute; 30.000 botila ekoitziko dituzte

URA ▶ Urte eta erdian Galizia eta Frantziako ura erabili behar izan dute; orain berriro, Lizartzakoa ▶ 6



Insalus ur fabrika berrituan lanean hasi dira duela urte eta erdiko sutearen ondoren; atzoko irudia, Lizartzan. IÑIGO TERRADILLOS

TOLOSALDEA ▶



HITZA

Eskualdeko elikagaiak Italian izan dira ikusgai

Babarruna eta txerriak Turingo azokan izan dira ▶ 2

LEITZA ▶

6.000 litro olio bano gehiago jaso dira 2004an

Herritar askok, eskolak eta jatetxeek birziklatu dute ▶ 7

TOLOSA ▶

Bonberenea, musikaz blai ▶ 3

VILLABONA ▶

Aizkardi mendi elkarteak urteko egitaraua kaleratu du

Euskal Herriko hiriburuak uztartzen bukatuko dute aurten ▶ 4



Aizkardi mendi elkartearen ibilaldi batera joandako mendizaleak. HITZA

GASTRONOMIA ▶



Pello Urdapilletak Bidanian ekoizten duen Euskal Txerriak arrakasta handia izan du Turinen; argazkian, urdaiazpikoa, txorizoa, xolomoa... HITZA

Euskal produktuak Italian

Slow Food-ek Turinen (Italia) antolatutako Salone del Gusto azokan izan dira Bidaniako Euskal Txerriaren eta Tolosako Babarrunaren ordezkariak

IRATXE ETXEBESTE

Turineran bidean abiatu ziren urriaren 19an, autoz, Bidaniako Pello Urdapilleta eta Tolosako Joxe Mari Barriola. «Gainerakoek hegazkin ez egin zuten Italiarako bidaia, baina produktu guztiak eskuan hartuta joan behar genuenez, nahiago izan genuen, poliki-poliki, autoan joan». Turinen bertan ez, eta mendi kasiko batean zegoen haiek ostatu hartu behar zuten lekua. Orduko zain zituzten Loren Urdapilleta, Lourdes Ibarbia eta Maite Izagirre lankideak, German Arrien Slow Food-eko Gipuzkoako ordezkaria eta Mariano Gomoza Bizkaiko Foru Aldundiko albaitaria eta Euskal Abereak elkartearen aholkulari eta bazkidea. Turingo Slow Food-eko Nazioarteko Azokan Euskal Txerria aurkeztera zihozaz horiek guztiak. Urdapilleta eta Barriola ere, berdin.

Tartean mundu osoko produktoreak zirela, Bidanian ekoiztako Euskal Txerriarekin egindako produktuak jarri zituzten salgai Tolosaldeko joandakoak. «Lehen egunean jakikiak dastatzeko eman genizkien salmahaira hurbiltzen zirenei, baina sekulako jendetza etortzen zela ikusita, salgai jarri genituen jaki horiek, diru kopuru sinboliko baten truke», esan du Joxe Mari Barriolak. Lurralde bakoitzeko produktuei eta hango eta hemengo arrazei eustea eta horiek denak bultzatzea izan da, bereziki, azokaren helburu nagusia.

Horixe bera da, hain zuzen ere, Slow Food delakoaren «filosofia». Nazioarteko mugimendua da Slow Food, eta elikaduraren defentsa aktiboa egitea du xede. Baita produktuek eta produktugileek bastea ere, bereziki galtzeko bidean diren arrazen, espezieen edo tradizioen kasuetan. Izan ere, herri baten kulturaren aberasgarritzat hartzen du Slow Food mugimendua elikadura, eta globalizaziotik eta gehiegizko produktiotik babestu nahi dute bere sustatzaileek. 1986an sortua, Slow Food elkarteak Bran (Italia) du egoitza nagusia, eta munduko 100 herrialdeetako 80.000 bazkide-tik gora ditu honezkerok. Laguntza beharrean diren produktu, produktugile, elikadura mota edo animalia arrazak antzematea eta katalogatzea ere bada Slow Food-en zeregina; Euskal Herri mailan bi ordezkari handi ditu: Bidaniako Euskal Txerria eta Tolosako Babarruna. Biak ere, eskualdekoak.

Nazioarte mailako ekitaldi handiak antolatzen ditu mugimendu horrek, baina, dudarik gabe, Turingo Salone del Gusto da garrantzitsuenak. Bi urtetik behin egiten dute 1996az geroztik, eta urtero gai ezberdina aukeratzen dute. Bat egin izan du lelo gisa aurten. Bat egin, mundu osoko 5.000 bat nekazari, ganaduzalek, artisauk... egin dutelako bat bertan.

Donostiako Arzak jatetxeko Elena Arzak eta Igor Zalakain sukaldarien erakustaldiak, Hondarribiako Alameda jate-



Fronton jatetxeko Roberto Ruiz, Turinen, Tolosako babarrunekin. HITZA

txeko Gorka Txapartegiren sukaldaritzak, Donostiako Aloña Berri tabernako Jose Ramon Elizondok Donostiako pintxoaren harira emandako hitzal-diak... arrakasta handia izan dute aurtengoan Turinen, eta kalitateko euskal produktuen ordezkari Tolosako Babarruna eta Bidaniako Euskal Txerria izan dira, bertara bildutako 150.000 ikusleen eta 2.500 kazetarien ikusmina piztuz. Biak hala biak Nazioarteko Slow Food-eko Gotorlekuan parte hartzeko aukeratu dituzte. Kalitateko produktuak ekoizten dituzten mundu osoko 65 produktugilek osatzen dute egun talde hori. Bidaniako Euskal Txerriaren ordezkariak Italiako Nekazaritza ministroarekin izan dute hartumana, eta ekitaldi garrantzitsuetan hartu dute parte haiek ekoiztako produktuekin, gainerako herrialdeetakoekin lehiatuz. To-

losako Fronton jatetxeko Roberto Ruizek, aldiz, 300 lagunentzako bazkaria prestatu du babarrunekin.

Bidaniako Euskal Txerriaren ekoizle Pello Urdapilleta gustura da Italiako salmentekin. «Slow food-en helburua ez da esportazioa, ekitaldi horiek sortzen duten oihartzuna, bai zik. Lekuan lekuko produktuak ezagutzera emateko oso garrantzitsua da azoka, eta oso kontent itzuli gara horretatik». Gauza bera uste du Barriolak ere. Euskal Txerrietatik ateratako produktuak xerratzen aritu da Turinen, eta azoka kanpoko produktoreekin harremanak lantzeko ere baliagarri badela irizten dio.

Tolosaldean baino gehiago baloratzen omen dira hemengo produktuak kanpoan, eta hori da, oraindik ere, «aldatu beharrekoa». Bertakoa, kalitatekoa dio esanak, ezta?

PELLO URDAPILLETA
EUSKAL TXERRIAREN EKOIZLEA

«Lekuan lekuko produktuak ezagutzera emateko baliagarria da azoka; kontent itzuli gara alde horretatik»

JOXE MARI BARRIOLA
URDAIAZPIKOA XERRATZEN MAISU

«Lurralde bakoitzeko produktuak eta arrazak bultzatzea da Slow Food mugimenduaren helburu nagusia»

ZENBAIT DATU ▶

Jende andana biltzen du Slow Food mugimendua, eta ekitaldiak erruz antolatzen dituzte bertako kideek. Turinen, Italian, bi urtez behin izaten den Salone del Gusto da horietako garrantzitsuenak.

V. SALONE DEL GUSTO AZOKA

Egunak. Urriaren 21etik 25era.

Non. Turinen, Italia.

Ezaugarriak. Euskal Herriko ordezkariak zabala joan da; horien artean, Bidaniako Euskal Txerriaren eta Tolosako Babarrunaren ekoizleak.

Partaideak. Mundu osoko 5.000 nekazari, abeltzain eta artisau baino gehiago egin dute bat; ikusleak 150.000tik gora eta kazetariak 2.500 inguru izan dira.

SLOW FOOD

Bazkideak. Mundu osoko 100 herrialdeetako 80.000 bazkide inguru ditu mugimendu horrek.

Ekitaldiak. Hainbat azoka antolatzen ditu urtero: Cheese (Italian), Slow Fish (Italian), Slow Food on film, Salone del Gusto (Italian)...

GUTUN@K 

AHTren inposaketaren aurrean Tolosaldeko udalek, zer?

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak urtarrilaren 15ean, Tolosako udaletxearen aurrean, 12:00etan, kontzentrazioa deitu du. Hori dela eta, datoren larunbatean AHTren inposaketaren aurrean Tolosaldeko Udalek zer? lelopean antolatuko den kontzentrazioan parte hartzeko deia egiten dugu.

Ekimen honek bi helburu ditu: batetik, informazio, sensibilizazio eta oposizio lanari jarraipena ematea, ingurumenean nahiz gizarte arloan ondorio larriak eragingo lituzkeen proiektu horren inguruan noizten ari garen erakundearen desinformazio orokorrari aurre egiteko, eta AHTren inposaketa gelditu beharra aldarrikatzeko. Eta bestetik, Tolosaldean Udalei AHTren inguruan duten jokabideagatik azalpenak eskatzea, hain zuzen ere, udalerrikaltetuetan herritarren arteko informazio, eztabaida eta erabaki prozesu bat abian jar dadin ezinbesteko urrats gisa

egitasmoa geldiarazteko eskakizunarekin bat egin dezaten eskatzeko.

Izan ere, Tolosaldeko udalei AHTren egitasmoak eragingo lituzkeen tokian tokiko ondorioengatik erantzukizun handia badute ere, kasurik gehienetan mutua daudela ohartarazi nahi dugu, herritarren artean AHTren aurkako iritzia eta sentimenduak era guztietako adierazpenak eman dituen arren.

Hortaz, nola justifika dezakete proiektuaren aurrean erakusten duten arduragabezia, azken urteetan jendeak AHT gelditzeko hainbat arlotan

aurreraren eramandako borroka trinkoa eta arrazoitua kontuan hartuta? Zer egiten dute AHTren inguruan herritarrek informazio garbia eta objektiboa jaso dezaten, edota gutxienez erakunde publikoen esku dauden dokumentazioa herriari ez gordetzeko? Ez al dira jabetzen egitasmo horrek ingumenerari, lurraldearen orekari, gizaritari, eta abar eragingo lituzkeen kalte larriez? Ondorio kaltegarri horiek guztiak udalek aztertzea ez al da erantzulezko pentsatzea ez al da are kezka-garriagoa gertatzen oraindik, herrietan eta gizarte mailan hain eztabaidatua eta kritikatu

tua den AHT egitasmoari gagoziola? Zein da zure herriko udalak proiektu honen aurrean duen jarrera?

Horregatik, joan den azarotik Donostian egindako manifestazioak AHTren aurkako oposizio soziala pixkanaka pixkanaka baina ziur zabaltzen ari dela erakutsi ondoren, oraingoan kontzentrazioan parte hartzeko deia egiten dizugu.

Zure parte-hartzea espero dugu!

ARANTXA GABIRONDO,

AINHUA JAUREGI ETA

MIKEL MUGERZA ▶ TOLOSALDEKO

AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN

MUSIKA ▶



Kokein taldea; gaur eskainiko dute kontzertua Bonberenean, Seg Sound Killers taldearekin batera, 22:30etik aurrera. WWW.KOKEIN.COM

Urte berrian Bonberenea musikaz blai

Urtarrileko agenda aurkeztu dute; gaur, Kokein eta Seg Sound Killers

LEIRE MONTES

Bosgarren. urteurreneko ekitaldiei agur esan berri diete Bonbereneakoek, baina urte berrirako ere asmo ugari dituzte etxekoek. Urtarrileko agenda prest dute, eta kontzertuz beterik dator urte hasiera. Asteburu honetan izango dira lehendabiziko biak:

Gaur, ostirala. Kokein eta Seg Sound Killers taldeek joko dute etxean. 22:30ean hasiko da kontzertua.

Bihar, larunbata. Hiru taldeen emanaldia izango da. 22:30etik aurrera: Fantastic Fallow, Basque Country Pharaons eta Black Diamond.

Hilaren 21a, ostirala. Boikot (Madril) eta Kalean taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean.

Hilaren 28a, ostirala. Bartzelonako Heltrip taldea igoko da Bonbereneako taula gainera. 22:30ean hasiko da kontzertua.

KULTURA ▶

‘Barrebira’ ikuskizuna, bihar Leidorren

Txan magoa, Elvi sabelhiztuna eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak ariko dira



Ikuskizunaren kartela. HITZA

L. MONTES

Etxeko txikienek ikuskizun apartaz gozatzeko aukera izango dute bihar arratsaldean Leidorren. Lehendabiziko aldiz, Euskal Herriko hainbat artista ezagun eta paregabeak bat egin dute, eta emanaldi berri bat sortu: *Barrebira* ikuskizuna.

Txan magoak, Elvi sabelhiztuna eta bere panpinek, eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek hartzen dute parte emanaldi horretan. Estreinakoz, Leidorreko taula gainera igoko dira gaur. Haien magia, umoreaz eta ezustekoez gozatzeko aukera izango da, 17:00etan.

BATZARRA ▶

Urteko batzar orokorra bihar Harizpen

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du bihar. Akten onarpena, jardueren zerrenda, kontuen egoera, 2005eko aurrekontuak eta lehendakariaren hautaketa dira jorratuko diren gaiak. 17:30ean da lehen deialdia, eta 18:00etan bigarrena.

ESKIA ▶

Autobusak elurretara Alpino Uzturrerekin

Alpino Uzturre elkarteak eskiatzera joateko autobusak antolatuko ditu. Hilaren 22 eta 23an Candanchu, Astun eta Somport aldera joko dute. Bazkideentzat 45 euro balio du txangoak, eta besteentzat 50 —autobusa eta pentsio erdia aterpean barne—. Izen-ematea elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

IKASTAROK ▶

LH institutuaren ikastaroetan izen-ematea

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak CNC Presadora programatzea, CAD 3D (SOLID EDGE) eta analisi kontablea ikastaroetan plazak daudela jakinarazi du. 18:00etatik 21:00etara eskaintzen dira eskolak, asteleheneetik ostegunera, eta doakoak dira. Izen-ematea 943 65 11 47an.

FUTBOLA ▶

Arruabarrena, 2.B mailako goleatzaile onena

Mikel Arruabarrena Bilbao Athletic taldeko jokalaritola losarra da 2. B mailako goleatzaile onena. Joan den azteburuan hiru gol sartu zituen Arru-k. Barakaldoren kontrako partidaren, eta *pitxitxi* izaten jarraitzen du. Hain zuzen ere, 5-1 irabazi zuen Bilbao Athletic-ek derbi horretan.


hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 943 65 56 95 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Rafaela Bazterargi Agurbe

andrea
(Jose Mari Uzkudunen alarguna)



Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Agur, amona maitea.
Nahiz eta gaur agur esan behar beti barre-barrean gurekin izango zara

Zure bilobak: Alaitz eta Ibon, Aiert eta Oihana, Eder, Lander, Eneko, Ibai, Itziar, Mikel, Andoni eta Jokin.

VILLABONA, 2005eko urtarrilaren 14a

ANOETAKO SOKA-DANTZA ▶ MIKEL ERRAZKIN-FERNANDO ROJO (HISTORIAZALEAK)

Garai bateko ohiturak berreskuratuz

Datorren urtarrilaren 29an, larunbaterekin, dantza-soka egingo du anoetar talde handi batek herrian; goizez Anoetako baserrietan, eguerdi eta arratsalde partean herriko plazan. Eki-men hau Anoetarrok Auzolanean plataformako Kultura taldeak antolatu du, eta herri-ritar askok parte hartuko du bertan.

Dantza-soka, hainbat dantzaren multzoa da, garai batean nekazal munduko gizaritean funtzio sozial nabariak zituen. Anoetarren komunitate ikur zen dantza hau 50eko hamarkadan galdu zen. 2003ko udaberrian, herriko gazte koadrilen ekimenez berreskuratuz zen. Bertan ondoko dantzak egiten dira: *Desafioa*, *Axeri dantza*, *Agurra*, *Zortziko* bat (aurreskuak inprobisatu behar duena), *Fandagoa*, *Arinarina* eta *Biribilketa*. Soka honen protagonistak aurreko eta atzeko dantzariak dira, aureskularia eta atzeskularia, Anoetan aurre-atziak izenez ezagutuak. Une konkretu batean, zubia egiten da, azpitik dantzari guztiak igaro behar dutelarik; honen esanahia onarpen sozialarena izan liteke, hau da, pertsona gizaritean onartua bazen, soka ere onartuko zuten; aldez, izen txarreko bazen, sokatik bota egingo zuten. Historikoki zabalduena mutilena izan da: dantza mutilek egiten zuten, eta dantza horren bitartez neskek omentzen zituzten.

Jatorriari eta interpretazioari dagokie-



50. hamarkadan Anoetan dantza-sokan atera zen taldea. HITZA

nez, modu ezberdinetako esanahiak aurkitu izan zaizkio dantza sozial honi. Zaharretarikoa Gorosabel historialari tolosarraren izkribuetan irakur daiteke, honek dantza-soka gudarekin harremantzen ezartzen zuten; bertan aureskuak eta atzeskuak desafioa dantzatzeko garaia bi buruzagien arteko erronkatzat ulertzen zuten. Ondoren, garrantzia emakumeari ematen hasi zitzaion; jada bi dantzarien arteko erronkak ez zuten garrantzirik, baizik eta bakoitzak plazan zein emakume aukeratzeko zuten agurra eskaintzeko. Nahiz eta litzuetak jaso zuten bezala (1824) herriko alkateek dantzatzeko zuten, oso

dantza protokolaria izan da XX. mendean zehar. Azken urteetan, antropologoek (esate baterako Urbeltzek) beste ikuspegi bat eman diote: gazteak gizaritearen parte izateko sarbidea da, hau da, helduen komunitatean parte hartzen hasteko erritua.

Juan Garmendia Larrañaga etnografo tolosarrak jaso ditu *Solsticio de verano* liburuan garai bateko Anoetako San Joan jaiak, Sarobe eta Tolaretxe —gaur egun Modestoenea izenez ezagutua— baserrietan entzunak. Bertan aipatzen denez, dantza-soka Anoetako jaietan hiru aldiz dantzatzeko zuten: San Joan egunean meza nagusiaren ondoren eta arrats partean;

eta San Joan hirugarrenean bestea, ekainaren 26an alegia.

Azken egun honetan, goiz osoan zehar baserri baserri oilasko biltzea egiten zuten, oilaskoak makila batean zintzilik eramanen zituztelarik. Bazkalostean, arratsaldeko lauretan, *ollasko-jokuba* egiten zen: oilasko hiru makile lotua ezarri eta dantzariak zortziko bat inprobisatuz bertara hurbildu eta ezpataz lepoa moztzen zion oilaskoari. Oilasko hauek afaltzeko arrazoi izango ziren. Tarte horretan egiten zen Aureskua. Auresku honetan lehen dantzariak pipar erroskilla bat zeraman eskuan eta sokara ateratzen zuten lehen emakumeari emango zion opari gisa.

50eko hamarkadan, hau aurrera eramango zuten dantza talde bat sortu zen. Urte askotan, taldearen arduraduna Manuel Odriozola izan zen. Policarpo Olano, Iruratik etortzen zena, ibili zen irakasle moduan. Taldea 16 mutil izatera iritsi zen, eta hauek egiten zuten dantza-soka San Joan eguneko meza nagusi ostean. Dantzari hauek nabarroz jantzita iritertzen ziren, hau da, zuri-gorritz. Garai honetan dantza honek harreman handia izan zuten Tolosan San Joan egunez ospatzen ziren batekin. Izan ere, Guadalupera Anoetako langileek hainbat bandera eskuratu zituzten garai honetan. Arraunlari hauei herri-ritar itzultzean taldeak dantza bitartez eskaintzen zien ongietorria. 60eko hamarkadan, herriko jendea Tolosara joaten zenez, batek ikustera, jaien eguna Korpusera igaro zen; jaiekin batera dantza-soka.

VILLABONA ▶ MENDIA

JOXEMI SAIZAR

2005eko mendi irteeren egitaraua atera du Aizkardi elkarteak eta igande honetan bertan egingo dute bat, urteko bigarrena, Urte Berri egunean Loatzon izan baitziren.

Hirugarren urtez Euskal Herriko hiriburuak uztartuz programarekin jarraitzen dute eta uztailan bukatuko dute 36 etapako bidea Donostian. Araba partean daude gaur egun eta Bizkaira iritsiko dira igandean, Zubillana-Urduña etapa eginaz. Kuartango mendilerroa zeharkatuko eta Kotorriolo (1.081m) eta Montemayor (1.103m) tontorretatik pasatuko dira, Arkamu mendilerroan

Euskal hiriburuak uztartzen bukatuko du aurten Aizkardik

Igandean hasita, hilero irteera bat egingo dute asmo horrekin; haurrekin beste irteera bat egiten dute hilero

Kruzeta (1.171m) eta Nerbioi ibaiaren sorlekura joango dira. Gibijo mendilerrotik Unzara eta Artomanara joango dira, Urduña bukatzeko.

«Normalean 6-8 orduko ibilaldiak izaten dira, desnibel handirik gabekoak, lasai joaten gara eta inor ez dugu atzean uzten. 30-40 lagun biltzen gara eta horietako batzuk egitasmo oso ari dira egiten», dio Aizkardiko ordezkari batek. Programa horretaz gain, ur-

tero neguan elurretara —Somportera, raketekin ibiltzera— irteera bat eta udan Pirinioetara beste bat egiten dute. «Iaz Oza-Candanchu eta barruadara jarraitu nahiko genuke, baina hori aterpean arabera egiten dugu», dio Urteroko marxa —aurten 37.a— eta Mendi Astea —22.a— ez dugu ahaztu behar.

Haurrekin ere hilero mendi irteera bat antolatzen du Aizkardik, Eskola Kirola progra-

maren barruan eta otsailaren erdialdean elurretara eramango dituzte Somportera.

Federatzeko garaia denez, ostegunero 21:00etatik 22:00etara egoitzan bertan egin daitekeela gogorarazi nahi dute.

Azkenik, informazio interesgarri betetako webgunea dutela esan behar da: egitaraua, orain arte egindako irteeren kronikak, mapak eta argazkiak... Hau da helbidea: www.galeon.com/aizkardi.

EGITARAUA ▶

Hauek dira antolatutakoak.

- Urtarrilak 16.** Zubillana-Arkamo-Urduña.
- Urtarrilak 30.** Elurretara.
- Otsailak 20.** Urduña-Garobel-Artziniega.
- Martxoak 13.** Artziniega-Ganekogorta-Pagasarri-Bilbo.
- Apirilak 3.** 37. Aizkardi ibilaldia.
- Apirilak 17.** Bilbo-Dima.
- Maiatzak 15.** Dima-Udalaitz-Bergara.
- Ekainak 18-19.** Bergara-Azkarate-Itzar. Itziar-Indamendi-Orio.
- Uztailak 10.** Orio-Donostia.
- Irailak 17-18.** Pirinioak.
- Urriak 16.** Lizarraga-Urbaosa-Opakua.
- Azaroak 13.** Opakua-Azazeta.
- Azaroak 21-27.** 22. Mendi Astea.
- Abenduak 18.** Azazeta-Gasteiz.

ISASTEGI
sagardotegia

Bihar irekitzen dugu, Zatoz gurera txotx egitera!!

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

TOLARE-SAGARDOTEGIA

SARASOLA

Jatorrizko Sagardoa
Sagardotegia - ASTASU
Tel.: 943 69 02 33
Zumalkardi Baserria - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22

Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

TRIKILARI ETA BERTSOLARIAK

IGUSI-ENEA

Gaur inaugurazioa
19:00etatik 21:00etara

Euskalerrri plaza, 6 • TOLOSA
Tel.: 943 65 10 59

ALEGIALDEA ▶ KIROLA

Gipuzkoako zaldi lasterketen ligaxka antolatu dute

Ligaxkan eskualdeko zazpi parte-hartzaile ariko dira; lehenengo lasterketa etzi, igandean, izango da Getarian



Bidarian urtero egiten den zaldi lasterketa ligaxkan puntuak lortzeko baliagarria izango da. O.ESKIXTABEL

OLAIA ESKIXTABEL

Gipuzkoako zaldi lasterketak izenarekin ligaxka bat antolatu dute lasterketetan parte hartzen duten hainbaten artean. Horien artean, Gari Lasa bidaniarra aurkitzen da; berak azaldu duenez, «orain arte herri bakoitzak bere aldetik antolatzen zituen zaldi lasterketak; orain, hartueman gehiago izate aldera, ligaxka bat antolatu dugu; lasterketa bakoitzean puntuatu egingo dute parte-hartzaileek».

Guztira, Gipuzkoako bederati herritan burutuko dira lasterketak; tartean, eskualdeko lau herri aurkitzen dira: Abaltzisketa, Asteasu, Bidegoian eta Zizurkil.

Ligaxka horretan hemezortzi parte-hartzaile finko izango dira; horiekin batera, beste parte-hartzaileentzat ere irekita egongo dira lasterketak (baina horiek ez dute puntuatuko). Eskualdeko zazpi parte-hartzaile ariko dira Gipuzkoako zaldi lasterketetako ligaxkan; horietako hiru asteasuarrak

dira, beste bi albizturtarrak eta gainontzeko biak bidaniarrak.

Puntuazioa honakoa izango da: lehenengo sailkatzen denak bost puntu lortuko ditu; bigarrenak, lau, hirugarrenak, hiru, laugarrenak, bostgarrenak eta seigarrenak bi eta zazpigarrenetik atzerakoek (lasterketa bukatzen dutenek) puntu bana.

Edozein arrazako zaldiekin parte hartzeko aukera emango dutela azaldu du Lasak. Hori bai, puntuak zaldi berdinarekin ateraz gero gehituko dira, bestela, aurreko puntuaketa kontutan hartu gabe, zero puntutik abiatuko da parte-hartzaile hori: «Zaldiak min hartu duelako edo lasterketaren ezaugarriengatik beste arraza batetako zaldiarekin parte hartu nahi badu, ez dira kontutan hartuko aurretik lortutako puntuak».

Lehenengoa hondartzan

Zaldi lasterketak, orain arte bezala, ibilbide desberdinekoak izango dira (batzuk hondar-

EGITARAUA ▶

Lasterketak	Eguna
Getaria	Urtarrilak 16
Ondarreta (Donostia)	Urtarrilak 23
Abaltzisketa	Ekainak 26
Asteasu	Uztailak 17
Aia	Abuztuak 7
Elgoibar	Zehazteke
Bidania	Abuztuak 28
Zizurkil	Irailak 18
Deba	Irailak 25

tzan, besteak, zelaietan, kurba askoko ibilbidean...).

Etzi, igandean, izango da lehenengo lasterketa Getariako Malkorbe hondartzan 13:00-etan; itzuli bakoitzak 400 metro ditu eta oraindik zehazteko dago zenbat itzuli emango dituzten: «Hondarraren egoera ikusi behar da horretarako», dio Lasak.

Finala, berriz, Deban izango da irailaren 25ean; bertan, sailkatutako lehenengo hamabiak izango dira. Bi final egingo dituzte: sailkatutako lehenengo sei en artekoa eta gainontzeko sei parte-hartzaileena.

ALEGIA ▶

Kuota ordainketa urtarrilaren 25a bitarte

Gabonsaria jasotzeko eta urteko kuota ordaintzeko epea pasa den asteazkenean, urtarrilaren 12an, ireki zen. Horretarako azken eguna, urtarrilaren 25ean amaituko da. Kuota, bost eurokoa izango da eta kuota hori ematen ez dutenek ez dute gabonsaririk jasoko. Eguberriak saskiaren zozketa, bestalde, abenduaren 31n egin zen; zenbaki sariduna 105a da. Zenbaki sariduna duenak hilaletako epea dauka saria jasotzeko.

ALEGIA ▶

Saharara bidaltzeko elikagai eske

Saharako Karabanan bidaltzeko janari bilketa ari da gauzatzen egunotan Aralar Institutuan urtarrilaren 10az geroztik. Eguberri aurretik, udaletxean eta herri eskolan burutu zen bilketa. Udaletxeko gizarte zerbitzuek, orain ere, bat egin dute ekimenarekin: «Lehenengo txandan iaz baino elikagai gutxiago bildu dituztelako». Eskatzen dituzten elikagaiak: Hegaluzera oliotan, konpresak eta azukrea. Janari bilketa, urtarrilaren 21era bitarte egingo da.

ALEGIA ▶

KZgunea zabalik izango da goizez eta arratsaldez

Kirol Kultur Etxean aurkitzen den KZgunea arratsaldetan irekitzen zen orain arte; astelehenetik, urtarrilaren 17tik, aurrera, ordutegi berria izango du. Goizez zein arratsaldez egongo da irekita. Astelehenetik ostiralera bitarte, egunero egongo da zabalik. Orduetegiari dagokionez, goizez 10:30etik 12:30era eta, arratsaldetan, 16:30etik 19:30era. Orduetegi horretan, beraz, KZguneako instalazioak erabiltzeko aukera izango dute alegiarrek.



Iaz ere egin zen bilketa. HITZA

IKAZTEGIETA ▶

Candanchura eskiatzera, martxoan

Candanchura eskiatzera joateko irteera antolatu du Ikaztegieta Udalak martxoaren 5erako eta 6rako. Helduak 24 euro eta hamaika urte bitartekoek 21 euro ordaindu beharko dituzte; prezio horren baitan, autobusezko bidaia eta afaria eta gosaria sartzen direla jakinarazi dute udaletxetik. Irteera martxoaren 5ean goizean goiz (06:00etan) izango da udal txete aurretik. Candanchurako irteera horretan izena eman nahi duten herritarrek otsailaren 11a bitarteko epea izango dute.

ALTZO ▶

Aerobik ikastaroa berriro ere martxan jarri da

Aerobik ikastaroa iaz jarri zen martxan eta herritarren artean izan duen arrakasta ikusita, bigarren hiruhilabeteoan berriro antolatzea erabaki du Altzoko Udalak. Pasa den astelehenean hasi zen ikastaroa eta martxoaren 23a bitarte emango da; astelehenetan eta asteazkenean, 19:45etik 20:45era bitarteko ordutegia du ikastaroak. Interesatuak oraindik ere izena eman dezakete helbide elektronikora (altzo@udal.gipuzkoa.net) mezua bidaliz edota 943 652413 telefono zenbakira deituz.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Larraitz auzoan etxebizitza saltzen da. 680 57 03 52.

GALDUTAKOAK

Fularra. Larruzko fular bat galdu zen

larunbata gpizean Alegiako San Joan kalean. 943 65 06 54. Sarituko dute. **Eguzkitako betaurrekoak.** Eguzkitako betaurreko urdinak galduta ziren Uzturren asteartean. 685 70 92 87.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Anoetako taberna batean lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91. **Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da esperientziarekin; asteen bitan

arratsaldean lan egiteko. Telefonoa: 943 67 04 46. **Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da, asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33. **Sukaldaria eta zerbitzaria.**

Sukaldaria eta tabernaria behar dira. 943 68 21 54 (15:00etatik aurrera).

ALOKAIRUA

Tolosan. Garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerri aldizkaria: 30 07 32

▶ Txolarrre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte C. Korre kalea 20

(Tolosa). 943 676013

Larraia M. I. Elbarren 95,

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

LIZARTZA ▶ EKONOMIA

Insalus-en instalazio berria martxan

Lantegi zaharra handitu eta aldamenen berria eraiki dute; 30.000 botila ekoitzi ahal izango dira makina berrieekin



2003ko uztaileko sutearen ondoren itxura berriarekin ageri da konponketa lanak amaitu eta gero. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

2.003. urteko uztailean bere instalazioak erabat suntsitu zituen sutea gertatu zen Lizartzako Insalus enpresan, eta hori dela eta, esfortzu handia egin dute, bai beiran baita PET

plastikoa ere egiten diren ontziratze-prozesuak berritzeko eta eguneratzeko. Galiziatik eta Frantziatik ekarritako ura erabili behar izan du epe honetan Insalusek, baina orain, berriro ekin dio Lizartzako ura ontziratzeari eta saltzeari.

Eraikin zaharra berritu eta handitu egin dute eta ura beirako botiletan sartzeko katea jarri dute bertan. Hau pasatu den urteko ekainean jarri zuten martxan.

Eraikin honen aldamenen plastikozko botilaratzea ahal-

bidetuko duen lantegi berria eraiki dute. Plastikozko ekoizpenaz gain, bukatutako produktua gordetzeko erabiliko dute eraikin berria.

Bai plastikozko lineak eta baita beira lineak ere, orduko 30.000 botilen produkzioarekin, merkatuak dituen behar berrietara egokitzea ahalbidetzen du. Azken teknologiei esker, produktu gama zabalagoa eskaintzeko aukera edukiko du eta era honetan zerbitzu hobea emango die bezeroei.

Ezusteko gehiago

Insalusek 1888z geroztik bere ur mineral natural famatua, gasarekin eta gasik gabeta, estatu mailako etxe merkatuan eta ostalaritza merkatuan banatzen du. Egun 28 langile ditu, lehen baino 11 gutxiago.

Orain urte eta erdi izandako ezbeharraz gain gehiago kontatu ditu sortu zenetik Insalus enpresak. Horrela, 1953an izandako uholdeek kalte larriak sortu zituzten Lizartzako enpresan eta berdin gertatu zen 1983. urteko uholdeetan. Bi gertaera hauen ondorioz enpresaren produkzioa gelditu beharra izan zuten.

Suteak eragindako hondamendia izan da, ordea, larriena eta Insalusek bere banatzaile, bezero eta kontsumitzaile guztiei azken hilabete hauetan erakutsi duten babesa eskertu nahi izan die.



Alurr-eko zozketan saritua

IBARRA ▶ Alurr dantza taldeak urtero egiten duen zozketak badu aurtengo irabazlearen izena, Mertxe Gurrutxaga ibartarra, hain zuzen ere. Izan ere 513 zenbakia izan da aurtengo saritua eta ibartarra berak zituena artean zegoela ohartu zenean sorpresa eta handia hartu zuela adierazi zuen. Mari Karmen Usabiagak eman zion irabazleari Alurr-en izenean sarituari zegokion 420 euroko ordainagiria. I. TERRADILLOS

IBARRA ▶ GIZARTEA

Asia hego-ekialdea eta Saharar herria lagunduz

Caritasek kontuak zabaldu ditu eta parte-hartzea eskatu du asiarrei diruz laguntzeko

I. TERRADILLOS

Milaka hildako eta lurraldea erabat hondaturik utzi zuen ezbehar ikaragarriak duela bi aste eta orain mundu osoaren laguntza behar dute bertako herritarrek.

Caritas Gipuzkoak Asia hego-ekialdearen aldeko laguntza-kanpaina parte-hartze eskatu du, larrialdiaren lehen faseko biktimak zaindu eta eremu horren berreraikuntzan lagundu ahal izateko. Horretarako Gipuzkoarren eskuzabaltasunari dei egin nahi izan dio.

Diru ekarpenak honako kontu korrante hauetan egin ahal izango dira: BBVA:

0182570941 0010011112, Kutxa: 210103810100 11112224 eta Laboral: 3035006041060 0100001.

Bestalde, *Euskal karabana Sahararekin, elika ezazu esperantza* da aurtengo lema saharar herria laguntzeko. Ibarroko Udaleko Gizarte Zerbitzuak berriro ere herritarren parte-hartzea eskatu nahi du saharar herriarentzako elikagaiak jaso ahal izateko. Aurtengo kanpaina atuna, azukrea eta konpresak bilduko dira.

Aurreko urteetako kanpainenetan bezala, produktua Udaltxean eta Kultur Etxean jasoko dira, eta urtarrilaren 21a izango da azken eguna.

LEITZA ▶

Ecuanavarra taldearen aurka ariko dira leitzarrak

Lurraldekako mailako sailkapen taulan, azken lekuetan dagoen taldea da

J. ASTIBIA

Asteburu honetan Ecuanavarra taldearen aurka jokatu beharra da Aurrera futbol taldea, Iruñerrian, eta esan liteke zailtasun maila handirik ere ez lukeela topatu behar emaitza ona eskuratzeko orduan.

Talde hau, oso baliabide material gutxi dituen da. Jatorriz Ekuadorrekoak dira jokalariek, taldea osatu, ahal duten moduan hornitu eta futbolearen aritzen den taldea, arlo teknikoa gehiegi landu gabekoa dutelarik.

Talde ttikia

Gauzak horrela izanik, talde ttiki hau, Lurraldekako mailako sailkapen taulan, azken lekuetan kokatuta dago, jetsierako postutan, jokatutako partiduetatik bakarira irabazi duelarik, 4 punturen jabe da.

Hau ikusita, beraz, itxuraz hain zaila ez den partidua dute igandean Salazar, Aurrerako entrenatzailearen mutilek. Leitzan hartu zituztenean, sei gol egin zizkieten.

Baina, hala ere ikusi egin behar da eta jokatu. Erraz ustean, ustel atera baitaitezke kontuak, eta hasteko, kanpoan jokatu beharrek berak ere, erreparoa sortzen du eta ez da zaintza inolaz ere galdu behar; eta bestalde, Ecuanavarra, bigarren itzulia hasita egonik, puntuak lortzeko premi larrian daude eta ezustekoren bat eman dezakete.

LEITZA ▶ INGURUMENA

6.000 litro olio baino gehiago jaso dira 2004. urtean Leitzan

1.600 herritar baino gehiago baliatu dira zerbitzu honetaz; herriko jatetxeek eta eskolak ere olio birziklatu egiten dute



Hilabeteko azken ostiraletan etorri ohi da olio-biltzailea eta plazan kokatzen da, merkatua dagoen garaian. Gero, herriaren barrena, itzulia egiten du AUZOZ-AUZO. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Iazko urtean, hau da orain bukatu berria den 2004. urtean, 6.000 litro olio baino gehiago bildu dira Leitzan, 1.600 lagun eta herriko jatetxeen artean. Litro pila hori dena, birziklatzeko jaso dute. Ez dira datu txarrak, jaso berri direnak.

Urtea bukatu eta horiexek dira, zerbitzu hau eskaintzen duen Ecogras enpresak igorri dituen kontuak. Orohar, bi ataletan banatuta daude balio estatistikoa hauek. Alde batetik herriko ostalaritzan jasotakoa zehaztu dute: 4.000 litro inguru bildu dituzte arloan. Herriko jatetxeak, Erleta eskola, elkarteak... ardura hori hartuta dute eta zerbitzu honen erabiltzaile

finkoenak dira, harremana ere zuzen-zuzenekoa dutelarik.

Bigarren datua, herritarren parte-hartzeari edo erabilerari dagokiona da. Kasu honetan, zehazki, 2.195 litro olio jaso dira zerbitzuan eta 1.608 lagun hurbildu dira furgoneta biltzailerak, etxean erabiltzeko olioak onazi batera botatzeko kezka eta ardura hartu dutenak, guztiak ere.

Horiek dira datuak. Kontutan hartu behar da, zerbitzu honetaz baliatu diren herritarrek, ez direla banako modura hartu beharrek, azken finean etxe batean jasotakoa eramatera joandakoak direla. Horrela, esan daiteke hainbeste familiek hartuta dutela jada, kezka hori beren gain. Hots, sukaldian

erabiltzen duten olioak eta botatzeko dena, zaborretara, edota kainutik behera isuri beharrean, berezita birziklatzeko jasotzeko ardura.

Hilabeteko, banaz-beste, 134 lagunek erabili dute zerbitzua. eta bertatik jakinarazi dutenez, joaten diren lagunak nahikoa finkoak dira, «etortzen direnek olioak jasotzeko ohitura hartuta dute eta hauek maiztasun batekin, erabat etortzen dira», zioten. Nabarmendu zutenek, gainerakoek ere gauza bera egin dezaten lortu nahi lukete, kotutan hartuta bertan ia 900 familia daudela.

Hemen bezala, beste herrietan ere jasotako olio hau birziklatuz, biodiesel egiteko erabiltzen dute.

ARESO ▶

Gaztetxoak pozik aski ibili dira oporraldian

Bukatu berri dituzte oporrak eta oraindik ere gogoan dute Bilbo aldera egindako irtenaldia, herriko gaztetxoek. Izan ere, Barakaldoko Erakustazokan, Eguerritarako jarrira zegoen atrakzio parkera joan ziren 35 bat lagun. Ikasle eta gurasoek, egun pasa eder askoa egin zuten elkarrekin, hango tramankuluetan gora eta behera. Duela 10 urtez geroz, erriña egiten dute honetarako eta ateratako diruarekin, ordaintzen hango gastu guztiak.

LEITZA ▶

'Mar adentro' filmea ikusgai zineman gaur

Filmeko irudi bat. HITZA

Leitzako zinema-aretoan, gaur, gaueko emanaldian, 22:30ean zehazki, *Mar adentro* filma eskainiko dute. Igandean, berriz ikusteko aukera izanen da, ohi denez, 19:30etik aurrera. Alejandro Amenabarrek, besteak beste, Jabier Bardem eta Belen Ruedarekin egindako lan honek, arrakasta izugarria lortu zuen hasieratik eta sari asko jaso ditu eta beste hainbatetarako izendatua izan da. Filme hau, duintasunez hiltzeko eskubidea aldarrikatuz, Ramon Sampedro galizarrak egindako borrokan oinarrituta dago. Eta egun hauetan berriz ere, kasu haren inguruko berriak agertu dira prentsan.

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'



LENTZERIA

Errementari kalea z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'DIARIOS DE MOTOCICLETA' filmerako 2 sarreren irabazlea:

LUISI ARREGI UGARTEMENDIA
HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

▶ **NEREA LENTZERIAk** oparitutako oherako arroparen irabazle den harpidedun laguntzailea:

KONTXI LULUAGA (ANOETA)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 14a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Araitzaletza, Aduna, Albitzar, Añeta, Alzo, Alzo, Aretxeta, Arana, Balaizoa, Beldarrain, Berriego, Etxano, Herriale, Itarra, Itzategi, Itura, Lizarra, Leizua, Lizartza, Orendan, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzuri. **bestenik:** Leizaldeko Eskola Bideratza

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurfari-tza,
Kultura Saia

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saia

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: ez
Albi: ez



Pagomari: ez
Igaratza: ez



HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(Zalantzak, Itarpidetako egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. Ttanttaka Teatroaren *Paradero desconocido* antzezilana, Leidor zinema aretoan, 22:30ean.

DEIALDIAK

Aduna. KZguneko tutorea goizean izango da herriko KZgunean, 09:00etatik 13:00etara.

Tolosa. AHTren inposaketaren aurrean Tolosaldeko udalek zer? lelopean, kontzentrazioa, bihar, 12:00etan, udaletxearen aurrean, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta.

Tolosa. Azkarate-Urreku mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturrek etzirako. Irteera 08:00etan Gorosabeletik. Bost orduko ibaldia da. Irukurutzeta (899m), Keixeta goikoa (878m) eta Irmo (896m) mendiak igoko dituzte. Izen-ematea, Gudari kalea 5, behean. 943 65 27 89.

Tolosa. Udaleko Gizarte Zerbitzu departamentuak kontu korrante bat ireki du Asiako hego-ekialdean izandako itsasikarak eragindako kalteak arintzen laguntzeko. Kubako 2101 0067 2000 1018 2384 kontu korrantean sar daitezke diru laguntzak.

Tolosa. Parkimetroetan ordaintzeko TAO txanpon-txartelak salgai daude Mugikortasun bulegoan (Gorosabel, 48) 3 eurotan. 30 euroko kargarekin saltzen

dituzte. Bukatutakoan, parkimetroetan berriro ere karga daitezke.

Tolosa. Ingurumen departamentuak Gabonetako pinuen bilketa kanpaina antolatuta du, konposta bihurtzeko eta ongari gisa lorategietan erabiltzeko. Horretarako edukinontzi bereziak daude *Bota piñue* leloarekin herrian zehar. Gaur amaituko da bilketa.

Tolosaldea. Segi gazte erakundeak Borroka Eguna deitu du gaurko. 11:00etatik aurrera, geldialdiak deitu dituzte ikastetxeetan; eguerdian, manifestazioa, Tolosako Triangulotik abiatuta; eta 20:00etan, eskualdeko manifestazioa, Villabonako plazatik aterata.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alatz Lopezen koadroak jubilatuta elkartean.

Tolosa. Nekane Fernandez pintore tolosarraren akrilikoak Sorron koadro denda.

Tolosa. Jose Enrique Zeberioaren margolanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Manuel Arrebekeren olio eta akuarelak Saikin tabernan.

Tolosa. *Sudurrak. Naturako usain gozoez* erakusketa dago Aranburu Jauregian bihar arte.

HITZALDIA

Zizurkil. Baserritarrei zuzendutako bi hitzaldi izango dira gaur Fraisoro Nekazari

Eskolan 11:00etatik aurrera. Lehenik eta behin, *Esne sektorearen egoera* izango dute hizpide, eta 12:00etan *Ardi eta haragi behien sektoreetan PAC erreformaren eragina* izango da solasaldiaren ardatz.

KIROLAK

GAUR

Esku pilota

(Gipuzkoako Elkarteen Artekoo)
▶ Umore ona-Aurrera Saiaz (Kadeteak. Xabier Telletxea. 20:00, Goizuetan).

▶ Aurrera Saiaz-Maestu (22 urtez azpikoak. Unai Aspe. 20:00, Ibarra).

▶ Aurrera Saiaz 2-Aurrera (22 urtez azpikoak. Ugaitz Renobales eta Julen Mujika. 21:00, Ibarra).

BIHAR

Areto futbol

▶ Hegoalde-Preconte Telde (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).

▶ Lo + Mrw CD-Laskorain (1. Maila B. 17:00, La Granja).

▶ Trans. Lakunza-Orioko taber. (Autonomik. 18:30, Olaederra).

Esku pilota

▶ Mikel Bellosa-Julen Mujika / Mikel Olaetxea-Xabier Arrastoa. Elgoibarko 22 urtez azpikoaren Txapelketa. 17:00, Elgoibar).

▶ Gazteleku-San Esteban. Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 16:30, Lazkao).

▶ Hernani 1-Kuku 1 (Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 17:00, Mitxelín).

▶ Arrasateko-Erriope (Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 17:00, Mitxelín).

▶ Behar Zana 2-Aurrera Saiaz 2 (Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 17:00, Bidegoian).

▶ Elordi-Kuku 2. (Eskuz binaka. Elkarteen artekoa. 17:00, Bidegoian).

Futbola

▶ Tolosa-Danok Bat (Kadeteen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).

▶ Tolosa B-Mariño (Lurraldeko 1. Maila. 15:30, Zubietan).

▶ La Salle Hnos. Zubia-Amaroz (Lurraldeko 2. Maila. 17:15, La Salle).

▶ Intxurre-Dunboa Eguzki (Lurraldeko 2. Maila. 15:45, Elorri).

▶ Billabona-Union Txiki B Touring (Jubenilen 1. Maila. 15:45, Arratzain).

Futbol 7

▶ Ron Cartavio-Bar Shanti Kiroak (2. maila A. 18:00, Andoain 1).

ETZI

Esku pilota.

(Elkarteen Artekoo Txapelketa)
▶ Aurrera Saiaz 2-Txaruta (Imanol Pastrain eta Eneko Galarraga). (22 urtez azpikoak. 09:30, Beotibar, Tolosa).

Areto futbol.

▶ Santurtzi-Lauburu (Jubenilen Liga. 12:15, Santurtzi).

Futbola.

▶ Ekuavarra-Aurrera (Lurraldeko 1. Maila. 15:45, Iruñean).

▶ Casco Viejo-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 16:00, J. Garcia).

▶ Aloña Mendi-Tolosa (Gorengoan Maila. 15:45, Azkoagain).

▶ Mariño B-Danena (Lurraldeko 2. Maila. Igoera Fasea. 15:30, Gal).

▶ Intxurre-Dunboa Eguzki (Lurraldeko 2. Maila. Igoera fasea. 15:45, Elorri).

Futbol 7

▶ Lanbroa Dickens-Perku taberna (1. maila A. 15:00, Felix Garin 1).

▶ Ibarroko Gazte Asanblada-St. Etienne Cafe bar (1. maila A. 12:00, Beasain 1).

LEHIAKETA

Leitza. III. Argazki Lehiaketa. Mendia eta natura gai izanik, ibeltzaren 15 baino lehen gehienez 3 argazki aurkez daitezke sariketara. Oinarriez galdetzeko, deitu 948 510 814 telefono zenbakira.

MUSIKA

Tolosa. Kokein eta Segi Sound Killers taldeen kontzertua, 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

Leitza. Alejandro Amenabar zuzendariaren *Mar adentro* filma, Leitzaoko zinema aretoan, 22:30ean. Bigarren emanaldia igandean izanen da, 19:30ean.

Tolosa. *Diarios de motocicleta*. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Janire Urretabizkaia
Beldarrain (Amezketan).
Gaur 2. urte. Zorionak eta muxu handi bat aitaboi, amaboi eta familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN

Eloy Iglesias (Ibarra).
Gaur 8. urte. Zorionak
Zuriñe eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Joanes (Altzo).
Gaur 5. urte.
Etxekoak.

HITZA,

zorion agurren tartea

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5. behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu

Modelo eta kolore ezberdinak neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSAko eta LEITZAko egoitzetara